

MARXARADA
Maskarada
 TELF.: (94) 446 77 81-412 05 09

H I K A
ANTZERKIA
 * ETA OHEA EGIN GABE
 * TXAPLIN TROPELA
 TELF.: (943) 43 00 10

ALTZA
 MONPAS
 ORTZADAR
 RIKARDO ARREGI
 euskaltegietan

EUSKARA IKASTAROAK
 DONOSTIAN: ALTZA euskaltegia. Txirrita Bertsol. 23. 39 43 75. MONPAS euskaltegia. San Franzisko 61. (Zemoria 5). 27 27 11. RIKARDO ARREGI. Sanchez Toca 1-1. 46 46 55. ERRETERIAN: ORTZADAR euskaltegia. Beheko kalea 11. 52 66 57

IRAGARKI MERKEAK
 TEL.: (943) 42 69 96
37x8,5mm.

EGUN BAT: 420pta./211.
 ASTEBETE: 2.080pta./1041.
 BI ASTE: 3.600pta./1801.
 HILABETE: 5.500pta./2751.

37x17mm.
 EGUN BAT: 840pta./421.
 ASTEBETE: 4.160pta./2081.
 BI ASTE: 7.200pta./3601.
 HILABETE: 10.100pta./5051.

37x34mm.
 EGUN BAT: 1.680pta./841.
 ASTEBETE: 8.320pta./4161.
 BI ASTE: 14.400pta./7201.
 HILABETE: 20.200pta./1.0101.

37x34ko 2MODULO
 EGUN BAT: 3.360pta./1681.
 ASTEBETE: 16.640pta./8.321.
 BI ASTE: 28.800pta./1.4401.
 HILABETE: 40.400pta./2.2001.

37x34ko 4MODULO
 EGUN BAT: 6.720pta./3361.
 ASTEBETE: 33.280pta./1.6641.
 BI ASTE: 57.600pta./2.8801.
 HILABETE: 80.800pta./4.0401.



Sambhu antzerki taldea azken ensaioetan buru belarri dabil.

JOXE

'Sambhu': «Gorputzaren lengoaia hitzena baino indartsuagoa da»

Mimo talde honek Iruñean aurkeztuko du 'Txaskido' bere obra

Sambhu Teatro' taldeak Iruñean antzestuko du larunbata eta igandean 'Txaskido' ('klaskada') bere azken obra, Nafarroako Antzerki Eskolan.

A.BARANDIARAN / IRUÑEA

Taldea orain dela urte bat osatu zen, Juan Antonio San Jose 'Sambhu' eta Azuzena Zabaletari Carlos

Salaberri gehitu zitzaizenean. Orduan hasi zen mamitzen orain aurkeztu duten obra. Taldekideen esanetan, «hasieran zerbait indefinidoa zen, helburu zehatz gabekoa. Saiok aurrera joan ahala, ideia bat gorputzen zioan». Ideia simple bat komplexua bihurtu zitzaizen, eta zuzentzaile bat aurkitu beharra somatu zuten. «Bartzelonatik Andrzej Leparski ezagutzen genuen, Mimo eta Pantomima Eskolaren zuzendaria, eta gustatu

zitzaion gure proiektua. Prozesu luzea izan da, baina oso gurea da, denok asko jarri dugu obra honetan».

Zuzendaria eta taldearen arteko lana izan dela diote, baina nabari zaie euren lana dutela. Zuzentzaileen lana zaldi bat gidatzea bezalakoa izan da, koreografia eta irudiak ideiarri lotuz.

'Txaskidon' errealitatea eta idealismoa nahasten dira, horretarako asko lagundu du mimoaren mintzairak, gorputzaren mintzaira, alegia.

Kili Kolo antzerki taldeak hamar urte beteko ditu antzezlan berri batekin

EIBAR

Gaur estreinatuko du antzezlan berria Eibarko Kili Kolo taldeak Eibarren. Unibertsitate Laboraleko aretoan arratsaldeko zortzi t'erdietan, '013 Varios: Informe prison' antzezlan ikusgai izango da.

Antzerki moldetara ekarri duten dokumentu deliktibo bat dela adie-

razten dute taldeko partaideek. Kartzela batetako preso arriskutsuenak bide zuzenera ekartzeko erabiltzen diren indarrezko jarrerak aztertzen dira lan honekin.

Antzezlan honek, 'Marques de Bradomin' antzezlanen saria jaso zuen 1987an. Rafael Gonzalez eta Paco Sanguino antzerkiaren egileak, Alicanteko Jacara antzerki taldeko

kideak dira. Bi jokolari hauek 1980an kartzela batean egin zuten antzezlan baten ondorioz otu zitzaizen lan hau idaztea.

Kili Kolo taldeak orain hamar urte hasi zenetik, antzerki teknika desberdinak lantzea eta kaleratzea izan du helburu. Mimoa, txotxongiloak, itzalak, kale antzerkia, testu inprobiatuak landu izan dute.

Bekarioen hirugarren musika kontzertuak gaur hasiko dira Bilbon

RAMON BASALDUA / BILBO

Gaur hasiko dira Bilbon Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako bekarioen hirugarren kontzertuak, Campos Elíseos antzokian hain zuzen ere. Bi izango dira bederatzi gazte hauek eskainiko dituzten saioak. Bata, gaur arratsaldean izango da eta beste bat bihar, biak ere arratsaldeko zortzi-retatik aurrera. Kontzertu hauen helburua, bekadunak orainarte betetako lana Bizkaiko gizarteari eskeintzea litzateke.

Hildo honetan, azpimarragarria da klarinete laukote batek joko duen Imanol Bageneta bekadunaren Cla-

rimaforo II musikalanaren mundu mailako estrenaldi hau. Kontzertu hauek oso garrantzitsuak dira bekariorio hauentzat Aldundiko Kultura diputatua den Tomas Uribebarria atzo adierazi egin zuenez. «Bizkaiko gizartearen aurrean aurkezteko aukera izugarria dute neska-mutil hauek. Kontserbatorian bertan hasitako bide baten amaiera lirateke III bekariorio kontzertu hauek».

Itziar Ugeda, Imanol Bageneta, Ana Isabel Galan, Ines Gomez, Carlos Alvaro Seco, Jose Garate, Miguel Ituarte eta María Victoria Aja dira Aldunditik diru laguntzak jaso dituztenak.



KEPA

LABURREAN

SANTAMARIAK

jaso du 'Manuel Lekuona Saria'

Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorrek 1991ko 'Manuel Lekuona Saria' Karlos Santamariari ematea deliberatu zuen Arabako Foru Aldundian eginiko azken bileran, euskal kulturaren alde burutu duen lan gaitzarengatik (opera omnia). Santamariak eginiko lana ugaria eta zabala da. Besteak beste liburu hauen egile da: 'Jacques Maritain y la polemica del bien comun', 'La Igesia hace politica' eta 'El desarme nuclear'. Zeruko Argia. Jakin, Anaitasuna eta beste zenbait prentsa argitalpenetan kolaboratu izan du ●

ROSTROPOVITX

gaur Victoria Eugenia antzokian

Mstislav Rostropovitz errusiar biloncello jole ezagunak Donostiako Victorio Eugenia antzokian izango da gaur, arratsaldeko zazpi t'erdietan. Orkestra Lituaniar-Alemaniarrekin joko du. Hilaren 21ean, astelehenean, Bilbokò Arriagan izango da. Cultura Musical elkarteak antolatutako kontzertu honek segidarik izango du, Krystian Zimerman piano joleak kontzertu bat eskeiniko bait du urtarilaren 27an ●

RUDI BARNET

hogeitabost zinema espezialistekin bilduko da

Gaur bilduko da Donostikoa Zinemaldiko zuzendari berria, Rudi Barnet, Europako hogeitabost zinema espezialistekin, berak esan bezela, «gaisoturik topatu duen zinemaldi hau aurrera ateratzeko». 39. Zinemaldia diseinatzeko zuzendari flandiarrek telebista ezberdinetako ordezkariek, zinema munduko jendea, dekoratzaileak, teknikoak eta beste konbokatutako bileran honetara. ●

JOHN CAGE musikoa Barcelonan dago

Musika instrumentala, balleta, opera eta plastika sormena, 'happening' deiturikoetan biltzen zituen John Cage orain hogeitamar bat urte. Orain ildo berberari jarraikiz, Barcelonan lan musikal eta plastikoaren erakusketa bana paratu ditu. Espai Poblenu aretoan paperean eginiko lan plastikoak ikusgai daude. ●